

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

# Samurtasunari epaiketa

**G**aurkoan, Askapena antolakundearen, Gabi, Walter, Dabid, Unai eta Aritzen, Askapeñaren (inoiz ez da egon Bilbokoek baino lan handiagorik emango zuen konpartsarik) eta Elkar Truke elkartearen kontrako epaiketaz baino ezin dut hitz egin. Konplikaturia da, baina, kausitzen duzun jendeari buruzko ikuspegi objektiboa eman nahi izatea. Gustuko izan eta, gainera, euren lana miresten duzunean. Are gehiago, lagunak direnean. Izan ere, ia ezinezkoa suertatzen da, azken finean, benetan, objektiboa izateko inolako asmorik ez daukazunean. Izan dadila hau, beraz, intentzio aitortzen argia, txartulertzerik egon ez dadin.

Munduan barrena zenbait egoera eta zirkunstantziaren aurrean horietako hainbat kide topatzen dituzunean, ezinbestean enpatiak eta sinpatiak sortzen dira. «Horiek», diot, Askapena ez direlako lau aurpegi horiek, ez bost, ez sei. Askapena protagonista bako mugimendua baita, indibidualismotik harago doana, zalantzarik gabe: herri eta auzoetako dinamikak; hamaika bandera eta kolore; injustizien aurrean paratzen diren ehunka zapata; herrien arteko elkartasuna islatzen dituzten milaka begi. Hori da Askapena.

Berriro ere, bada, Entzutegi Nazionalean egiten diren epaiketa masibo horietako baten aurrean gara. Masiboa, kriminalizatu nahi den horren tamainari erreparatzen badiogu, eskaera fiskal izugarrien zamarekin, beste inon eta ezker abertzalekoa ez den beste edonorentzako jasangaitzak diren amesgaiztozko akusazio beldurgarriekin. Gu, ordea, horrelakoak duintasunez eta etsipen puntu batekin jasan eta eramatera ohitzen hasiak gara.

Ez da hau antolakunde horrek munduko txokorik urrunetan egiten duen lan baliotsua goraiatzeko toki, ez da hemen gertatzen dena lau haizetara zabaltzea eta ekarpenak jasotzeko egin duten lana mirestekoa. Askotan, gainera, elkartasun internazionalistak oso muturreko egoeretan jarri ditu antolakuntzako kideak: talde "deskontrolatuen" jazarpena Ameriketako hainbat herrialdeetan; kriminalizazio kanpainak espainiar komunikabideetan; atxilotuta eta galdeketa Tel Aviv bezalako toki ez atseginetan... Etxekoarekin nahikoa izango ez bagenu bezala! Bada, ez. Parada zailak, egindako lana beharrezkoa zela egiaztatze balio izan dutenak, eta estatu gabeko nazioen eskubideak eta beren eskubideen alde

borrokatzen duten herrien aldeko apustua berresteko balio izan dutenak.

Oraingo honetan, ordea, bereziki azpimarratu nahi nuke Askapenak internazionalismoa etxera ekartzeko egindako lana: urrutiko borroka guri azalduz eta ezagutzera emanaz. Ez hori bakarrik, Euskal Herriarekin solidario izan den jende guztia gogora ekarri nahi nuke. Horren adibide garbia da Uruguaiako Filtroko sarraskia, esaterako, non Roberto Facal eta Fernando Morroni gazteak hil arte tirokatu zituzten hiru euskal herritarren estradizioaren kontra protestan ari zirenean.

Urtero gogora ekartzen ditugu, gertakariaren urteurrenean, Bilboko Aste Nagusian. Eta hamabosgarren urteurrenean Norma, Morroniren ama, gure artean izan genuen. Emakume nagusi eta indartsua, argi utzi zigun han, kanpoan, askotan elkarrengandik urruti gaudela badirudi ere (ez naiz ari kilometrotan neurtzen den distantziak), internazionalismoa erreala dela. Bide batez, gogora ekarri nahi dut Normak Blanca Antepararekin batera eskaini zuten elkarriketa zirrargarria. Aukera baduzue, irakurri.

Internazionalismoa ez da soilik gure aldarrikapenekin bat egingo duen jendearen babesa bilatzea, beste toki eta herrialde batzuetako borroka ezagutu eta gure egitea ere bada

Esaten nuen moduan, internazionalismoa Euskal Herriara ekartzearen aldeko lana funtsezkoa dela uste dut. Izan ere, internazionalismoa ez da gure aldarrikapenekin bat egingo duen jendearen babesa bilatzea soilik, beste toki eta herrialde batzuetako borroka ezagutu eta gure egitea ere bada. Askotan, gainera, ugariak dira komunean ditugun elementuak: estaturik gabeko nazioen autodeterminazio prozesuak; AEBetako preso politikoak eta haien bizi baldintza gogorrak; Sahara eta Kurdistanen ematen diren indarrezko desagerpenak; estatu terrorismoaren biktimen aitortzaren aldeko lana Irlandan... Zeregin horri ematen zaion babes eta elkartasuna da astelehenetik aurrera epaituko dena Entzutegi Nazionalean. Azken finean, elkartasuna herrien arteko samurtasuna bada, samurtasun hori da epaitu nahi izango dutena. •